

2013-12-12

Zestoako geltokiaren berritze lanetan aritu dira hamabost preso

Hogei eguneko jardunaren ostean, Martuteneko presoek gaur amaituko dute gizarteratze proiektua

Erredakzioa

Martuteneko bigarren graduako hamabost preso Zestoako (Gipuzkoa) geltokia eraberritzen aritu dira egunotan. Gaur bukatuko dute Aranzadi zientzia elkarteak abian jarritako egitasmoa. Espetxeko zerbitzuak eta gizarteratzeko programak hobetzea, presoek prestakuntza profesionala eskaintzea eta kultur ondarea berreskuratzea du helburu proiektuak. Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Zestoako Udalaren lankidetzarekin finantzatutako egitasmoa da.

Gipuzkoako ahaldun nagusi Martin Garitanok adierazi duenez, Euskal Herrian «lehen aldiz» gauzatu da esperientzia aitzindari hau, eta ondare historikoaren zaharberritzea eta presoek formakuntza eta gizarteratzea uztartzen ditu.

Egitasmoaren «balio etiko eta sozialei» eman die garrantzia Martin Garitanok; elkarlana, elkartasuna, tokian tokiko eragileek parte hartzea, gizarteratzea eta abar aipatu ditu. «Proiektu honek erakusten digu gauzak beste era batera egin daitezkeela; ohiko dinamiketatik irten eta gure gizartearen beharrei erantzuteko modu berriak aurkitzea posible dela».

Guztira hogei egun aritu dira Zestoan lanean Martuteneko presoak. Geltokia berritu ez ezik, giza eskubideei, genero berdintasunari eta Euskal Herriko kulturari buruzko lau eskola teoriko ere jaso dituzte. Esperientzian parte hartu duten presoek eraikuntzaren arloan prestakuntza profesionaleko titulu bat eskuratuko dute.